

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## ADARDUN ERBIA

Errien artean jantziak izaten dira ezaugarri. Askok euren itxurea antz-aldatu arren, guzurrezko tituloak eta almenak agertu arren, arrokeria agertzen danean, besteen izeka eta arbuioa be agertzen dira.

Kanba dortokeak bere erabagia sendo agertu eban:

—Iñoz ez joan jai batera, arako deia artu bagerik.

—Ni nai dodanean joango naz —erantzun eban Kalula erbiak. Onek bere burua basobaltzean diranen artean maltzurrena dala uste dau eta basauntzen jaira joateko ustea eban.

—Bai, joan eta jolastu egingo naz —esan eban arro-arro.

Gero airean arnasea artu eta aldarriz esan eban:

—Sua! Goazen emendik guztiok!

Eta alantxe zan. Basobaltzean su aundi bat sortu zan. Piztiak ara ta ona iges egin eben. Dortokea leiza batera sartu zan et arri baten azpian ezkutatu. Kalula (erbia) ezin sartu eta errekarantza joan zan, baiña arin joiala oztopo egin eta jausi egin zan luze. Une baten geldi-geldi egon zan.

—Ni suari iges egiten noa eta non egin dot oztopo?

Begiratu eban ingurura eta Kudu aundiaren adarrak ikusi ebazan eta pentsatu eban: Artu ebazan adarrak, joan zan Nginzi erlearengana, argisari apur bat eskatu eutson eta bat-batean lotu ebazan adarrak buruan. Eta aundikoro joan zan basauntzak egozan lekura.

Erbia eldu zanean basauntzak, eta eumak berbaz egozan ilargipean. Bat igaro zan eume zaintzaillearen ondotik eta asarre esan eutson:

—Kontuz! Ez itxi iñori ortik sartzen deia ez ba'dauko! Ez gaizala leoiak itsu-mutsuan arrapatu.

Orduantxe etorri zan Kalula (erbia).

—Parkatu atzeratu egin nazalako –esan eban. Sua egoalako asko ibilli bear izan naz.

—Zu nor zara? Zer egiten dozu emen? –Itandu eutsoen.

—Ni nor nazan? Ez dozu ikusten zure lengusua nazela? Eta jairako nator. Ez atera orain olako atxakirik!

—Baiña deituta zagoz? –esan eban eumeak.

—Basauntz guztiak dagoz deituta! Ez? Esan eban Kalula (erbiak).

—Bai, bai! Baiña zuk ezin dozu agertu basauntza zarala!

—Ez dozuz ikusten nire adarrak? Neureak dira! –esan eban Kulula (erbiak) aspertuta.

Eumeak buruari eragin eutson eta itzi eutson sartzen erbiari. Iñor ez zan konturatu sartu zanik. Baiña bat begira begira jarri eta esan eutson:

—Begiratu zer pizti bakana! Gutarikoa ete da?

Jaiak gau osoan iraun eban.

Kalula (erbiak) goizean joateko ustea eukan, baiña loak artu eban, eguzkia bero egon arren antxe egoan lo.

Gamo bat urreratu jakon eta barre egin eban. Besteai be dei egin eutsen barre egiteko. Argisaria urtu egin zan eta adarrak askatu eta belarriak estaltzen ebezan begiak.

—Kalula da au –esan eben barreka– Zoroa benetan. Irakatsi bat emon bear dautsagu.

Esan eta egin. Uretara bota eben eta erbia itzartu egin zan eta aldarrika esan eban:

—Lagundu niri! itoten nago!

Basauntzak barreka egozan eta auxe abestu eben:

—Basauntzak uger dakie. Zuk uger ez ba´dakizu, adarrak galdu dozuzelako da. Itzartu zara? Garbitu egizu arpegia, kentzeko daukazu argisaria!

Arnasa bagerik egoan oraindiño Kanba dortokea etorri zanean:

—Suagaz txarto ibilli ziñan, ez da? –itaundu eutson Kanba´k.

—Ez nago nekatuta orregaitik. Basauntzen jaira joan bear izan dot. Ederra izan zan eta asko jolastu nintzan

—Egia da. Baiña, ai nire burua! –esan eban dortokeak. Gamo batek esan eustan ederto egon ziñala eta basauntzak pozik euki dozuzela.

—Nork ez dautzu ori? Gamoak? –itaundu eutson Kalula erbiak, Kanba dortokeari begira egoala.

Kalula erbiak agirian ikusten eban bere burua eta ezin ebazan jakin zeintzuk ziran dortokearen asmoak.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek